


4. Eranskina

AUTOEZAGUTZA
DESBERDINAK EZAGUTUZ



1. irudia. Autoezagutza. 2009.

(Iturria: <http://orientacionfabero.wordpress.com>)

IZENA:

ZER DA AUTOEZAGUTZA?



GOAZEN LAGUN BERRIAK EZAGUTZERA!

Ondorengo hauek izango dira ezagutuko ditugun lagun berriak.

- ✚ Mikel
- ✚ Winnie
- ✚ Markel
- ✚ Amale
- ✚ Ni neu

Goazen ikustera bakoitzak bere buruaz zer pentsatzen duen! Hau da, goazen **AUTOEZAGUTZA** desberdinak aztertzerara.

MIKEL

Kaixo lagunak! Mikel Agirre nauzue! hamaika urte ditut eta Plentzian bizi naiz nire guraso eta arreba txikiarekin.

Ikusten duzuen moduan, beltzarana naiz, izan ere, txikitan, Kongon bizi nintzen.

Ballet-a asko gustatzen zait eta egia esanda, oso trebea naizela pentsatzen dut. Honetaz gain, betidanik, futboleko aritzea gustukoa izan dut. Honetan ere, jokalaria bikaina kontsideratzen naiz. Eskolan, lagun asko ditut eta izugarri gustatzen zait haiekin jolasten egotea.



3. irudia. Mikel
(Iturria: <http://sp.depositphotos.com/>)


WINNIE

Kaixo! Nire izena Winnie Harlow da eta hogei urte ditut. Toronton (Kanadan) bizi naiz. Jaio nintzenean guztiz beltzarana nintzen baina lau urterekin, lehenengo makula zuriak agertzen hasi zitzaizkidan.

Txikitatik modeloa izatea nahi izan dut. Jende askok pentsatzen zuen ezin izango nuela nire ametsa egi bihurtu nire makulak zirela eta, baina egia esaten badizuet, nire fisikoa inoiz ez da arazo bat izan niretzat. Gauza positibo baten moduan hartu izan dut, besteengandik desberdintzen nintzelako. Gainera, nigan konfiantza izanda, gaur egun modeloa naiz.



4. irudia. Winnie txikitan
(Iturria: Instagram @winnieharlow)



5. irudia. Winnie gaur egun
(Iturria: John Phillips, 2015)

MARKEL

Kaixo neska mutilak! Markel Urgoiti naiz, bederatzi urte ditut eta Algortan bizi naiz nire amarekin. Asko gustatzen zait berarekin egotea, elkarrekin primeran pasatzen dugulako!



6. irudia. Markel
(Iturria: <http://www.pediatricblog.es/>)

Liburuak irakurtzea gehien gustatzen zaidan ekintza da, izan ere, gauza izugarriak eta miresgarriak ikasi daitezke liburuetatik. Beraz, eskerrak betaurrekoak ditudala! Bestela... ezin izango nuke irakurri.

Eskolan nota oso onak ateratzen ditut. Nire irakasgairik gustukoena, matematika da. Gelako emaitza hoberenak ateratzen ditut. Askotan nire ikaskideei gauzak azaltzen dizkiet eta haiek asko eskertzen dute nire laguntza.

AMALE

Kaixo lagunak! Amale Bilbao naiz. Hamar urte ditut eta Sopelan bizi naiz nire guraso eta ahizpa txikiarekin.

Aitortu nahi dizuet ezezagunekin oso lotsatia naizela, eta beraz, asko kostatzen zaidala nire bizitzari buruz hitz egitea.



7. irudia. Amale. 2015.
(Iturria: <http://www.potterfics.com/>)

Argazkian ikusi dezakezuen moduan, ilegorria naiz. Nire familiakoek ezta eskolakoek ere, ez daukate nire ile kolorea. Nire gurasoek ederra naizela esaten didate baina eskolan, badaude zenbait mutil nitaz barre egiten dutenak eta ondorioz, desberdina naizela sentitzen dut.

Saski baloian jolastean askea sentitzen naiz, deskonektatu egingo banu bezala. Oso jokalaria bikaina naizela esaten didate denek, eta egia esanda, nik ere hori pentsatzen dut.

NI NEU: _____

Orain zure aukera da! Hurrengo lerroetan zure buruari buruz idatzi behar izango duzu. Amaieran, egin ezazu marrazki bat azaldu duzunaren inguruan.

